

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

598/2024 Foru Agindua, azaroaren 27koa. Karrerako funtzionarioak izendatzea, administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalan, hainbat lanbidetako langileen klasean (topografia, C taldea, C2 azpitaldea) karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesu baitagokio (2022ko EPEa)

Abenduaren 7ko 572/2022 Foru aginduaren bidez, onespena eman zitzaien Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorrean karrerako funtzionario gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokion salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrei.

Abenduaren 12ko 580/2022 Foru Aginduaren bidez, aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko lan-eskaintza publikoari dagokion Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorreko karrerako funtzionario izateko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuak arautu behar dituzten oinarri espezifikoak onetsi ziren.

Urriaren 29ko 455/2024 Foru Aginduaren bidez, karrerako funtzionario izendatu ziren administrazio bereziko eskalan, zerbitzu berezien azpieskalan, ofizioetako langileen motan, topografian, C taldean eta C2 azpitaldean karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdian. Deialdi hori Arabako Foru Aldundiaren iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuari dagokio (2022ko EPE).

Azaroaren 20ko 569/2024 Foru Aginduaren bidez, karrerako funtzionario izendatutako pertsona baten borondatezko eszedentzia deklaratu zen.

Arabako Foru Aldundiko administrazio orokorreko karrerako funtzionario izateko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesua arautzen duten 2022ko lan-eskaintza orokorreko oinarri orokorretan (8.2. C) aurreikusitakoaren arabera, epaimahai kalifikatzaileak proposamen gehigarria egin du prozesua gaingitu duen izangaia izendatzeko. Beraz, karrerako funtzionario izendatu behar da eskala honetan: administrazio berezia, zerbitzu berezien azpieskala, ofizioetako langileak, topografia, C taldea, C2 azpitaldea.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Horrez gain, diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorritik, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Karrerako funtzionario izendatzea, administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalan, hainbat lanbidetako langileen klasean (topografia, C taldea, C2 azpitaldea) sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuari baitagokio (2022ko EPEa), hura gaingitu duten izangaia, ondoren adierazten diren lanpostuei atxikita:

IZENA	KODEA	LANPOSTUA
Iñigo Areta Martinez De Marañón	1531.007	Topografiako laguntzailea

Bigarrena. Izendatutako pertsonek 2024ko abenduaren 9an jabetu beharko dute esleitutako lanpostuez.

Ezarritako egunean lanpostua jabetzan hartzen ez badute, salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo dituzte deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Foru Aldundiko funtzionario izaera eskuratzeko.

Hirugarrena. Sartu berri diren funtzionarioak adjudikatutako lanpostuei atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikularekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 27a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR